



## 11-15 urte bitarteko ITSASONDOKO NERABEEKIN PARTE HARTZE PROZESUA

1. Helburuak
2. Metodologia
3. Baliabideak
4. Partehartzaileak eta deialdia
5. Parte hartze saioak, saio bakoitzeko balorazioa.
6. Kronograma
7. Prozesuaren ondorioak

### 1. Helburuak

Parte hartze prozesu hau herriko nerabeekin burutu nahi da, gazteri lantaldetik eratorritako hausnarketan garatu ziren printzipioak beraiekin lantzeko, bereganatzeko eta barnerratzeko.

- Herri identitatea
- Guztion herria
- Herritik herriarentzat

Partehartze prozesuak helburua zehatz hauek izango dira:

1. Herriko nerabeekin herri identitatea zer den hausnartzea.
2. Herriak eskaintzen dienaren inguruan hausnartzea.
3. Herriak duen kultura aniztasunaz jabetu eta hau ondare gisa ulertu.
4. Herriak eskatzen dienaren inguruan hausnartzea.
5. Beraien hitzari garrantzia ematea.
6. Autonomia pertsonalaren garapenean laguntzea.
7. Partehartzean trebatzea.
8. Herritar gisa dituzten eskubideak eta betebeharren inguruan hausnartzea.
9. Ondorioztatutakoen inguruan konpromezuak hartzea.

*Horrelako egitasmo bat martxan jartzeak **haurrak eta nerabeak subjektu aktibo** bezala ulertzeko ideia zabaltzen du. **Udalean haur eta nerabeen ahotsak entzuten dira** eta hauek **protagonista** bilakatzen dira. Subjektu aktibo izateak, zerbitzua beraiekin garatu nahi dugula esan nahi du.*



## 2. Metodologia

- Parte hartze prozesu hau, printzipioz 4 saioetan egitea aurre ikusten da.
- Hiru hausnarketa saio eta azken saioa, ondorioak eta konpromezuak hartzeko izango da.
- Saioetan ezarritako helburuak bete ez direla baloratzen bada, saio berriak proposatu ahal dira. Azken saioa egiteko baldintzetan gaudela ikusi arte.
- 2 ordutako saioak izango dira printzipioz.
- Saio guztiak dinamika ezberdinez osatuak izango dira, hausnarketa eta auto-ezagutza (kolektiboak) jolasak izango dira nagusiki.
- Saioak udaleko gazteri dinamizatzaileak eta bi hezitzaileak burutuko dituzte (Gazteri zinegotzia?)
- Saioen prestaketa udaleko gazteri dinamizatzaileak eta hezitzaileak diseinatuko dituzte, eta gazteri lantaldearen iritziekin osatuko dira.
- Saioetarako beharrezko materiala hezitzaileek prestatuko dute, gazteri dinamizatzailearekin batera.
- Saio bakoitzaren ondoren hezitzaileek balorazio bat jasoko dute (aurrez zehazturiko irizpide batzuen baitan) eta gazteri dinamizatzaileak osatuko du.
- Saioen hasieran eta amaieran gazteri lantaldeko bilera bat egingo da, partehartze prozesuaren "aurkezpena" egiteko eta amaierako ondorioak jasotzeko. Bertan gazteri lantaldea (eskola, guraso elkarte?), hezitzaileak partehartuko dute.
- Parte hartze prozesua garatzeko laguntza teknikaririk beharko balitz, Gaztematikako teknikariari kontsulta egin diezaiokegu.

Parte hartze saio hauei begira honako hauek kontuan izan behar ditugu:

## 3. Baliabideak

### 3.1 Baliabide pertsonalak

- Udaleko gazteria-kultura arloko dinamizatzailea (Nerea Manzisidor)
- Gazteria lantaldeko, Ane Plazaola, Jaione Castrillo eta Xabi Iturrioz.
- Hezitzaileak Anne Garcia eta Jon Eskisabel



### 3.2 Baliabide materialak

- Udalak bere esku dituen baliabide guztiak jarriko ditu prozesu hau garatzeko (espazioak barne), zein material eta noiz behar den jasoko duen eskaera orria aurkeztu beharko da udalean.

### 4. Partehartzaileak eta deialdia

- Itsasondoko erroldatutako 11-15 urte bitarteko nerabeak izango dira deituak parte hartze prozesu honetan parte hartzera.
- Deialdia gutun bidez egingo zaie ofizialki.
- Partehartzeko gonbitea hezitzaile lantaldea hasi eta gaztelekuaren irekierarekin egingo den irekiera festan ostiraletako dinamikara etortzea gonbidatu zaie.
- Irekiera hau eman eta pare bat astera edo abiaraziko dugu partehartze prozesua, hezitzaile taldea finkatu eta nerabeak ezagutzeko aukera izan dezaten.
- Ohiko bideak erabiliko dira bestalde, deialdia zabaltzeko. Web orria, pantailak eta wasap-a.

### 5. Materiala

AMIA txantiloiak prestatu  
Itsasondoko mapa handia imprimatuta (1)  
Boligrafoak  
Margoak  
Gometxak  
Post It-ak  
Artaziak  
Kola  
Kompromezuak hitzartzeko txantiloia sortu



## 6. Partehartze saioak

1.Saioa	
<b>Gaia</b>	<b>HERRI IDENTITATEA</b>
<b>Data</b>	Maiatzak 28
<b>Helburuak</b>	<ol style="list-style-type: none"><li>1. Herriko nerabeekin herri identitatea zer den hausnartzea.</li><li>5. Beraien hitzari garrantzia ematea.</li><li>6. Autonomia pertsonalaren garapenean laguntzea.</li><li>7. Partehartzean trebatzea.</li><li>8. Herritar gisa dituzten eskubideak eta betebeharren inguruan hausnartzea.</li></ol>
<b>Metodologia</b>	<p><b>ESNATZE JOLASA</b></p> <p>NARANJA/LIMOIA: Joku hau elkar ezagutzeko baliatuko dugu. Kasu honetan, borobil batean jarriko gara denok eta kideetako bat erdian egongo da. Horrela, erdiko kideak borobilean dagoen kideren bat behin seinalatuta, naranja de limón esan beharko du. Naranja esanez gero, bere eskuinean dagoen pertsonaren izena esan beharko du. Aldiz, limón esanez gero, bere ezkerrean dagoen pertsonaren izena esan beharko da.</p> <p><b>IDEIEN EKAITZA:</b> Itsasondoren inguruan hausnartu (HERRI IDENTITATEA)</p> <p>Saioarekin hasteko paper handi batean bakoitzari herri identitateari buruz bururatzeko zaiona idatziko du, ondoren dinamika batekin hasteko. Momentuan bertan, eta denen parte-hartzea sustatzeko asmoz, 3-4 partaidez osatutako taldeak osatzeko eskatuko diegu. Talde bakoitzari galdera bat esleitu zaio eta hauen ordena jarraituz, galdera bakoitzaren inguruan talde eta taldekide guztiek beraien ideiak partekatzeko eta solasaldian aritzeko aukera izango dute. Horrela, galdera hauen inguruko ikuspuntuak eta pentsamenduak helaraziko dira. Hauek izango dira planteatutako diren galderak:</p> <ol style="list-style-type: none"><li>1. Zer da zuentzat Itsasondo?</li><li>2. Nola sentitzen duzue?</li><li>3. Nolako herria dela uste duzue?</li><li>4. Zein alderdi on ditu Itsasondok?</li><li>5. Zer falta dela uste duzue hemen?</li><li>6. Zein hiru hitzen bidez definituko zenuke Itsasondo?</li></ol>



<b>Materiala</b>	Paper handia eta boligrafoak
<b>Balorazioa</b>	<p>Saio bakoitza baloratzeko tresna berbera erabiliko dugu, materialen karpetan sortu dugun taula. Taula honetan zenbait irizpide jarri ditugu eta irizpide bakoitzarekiko duten sentipena adierazten duen "emoji"-an X markatu beharko dute. Parte-hartzaile guztiek taula berean egingo dute balorazioa eta ondoren hezitzaileok taulako ondorioak aterako ditugu egunez egun.</p> <p><b>Hezitzaileok ikusitakoa:</b> Guztira 14 nerabe gerturatu dira gaur. Jolasak izan dira saioaren gakoa, nerabeak erakartzeko gehien lagundu diguna. Herri identitateari dagokionez, aurrerapen handirik ez da egon, hausnarketa sinpleak egin dituzte baina gogoia jarri dute dinamikak fruituak eman zitzaizkien. Hasieran gaia ikustean lekuz kanpo sentitu dira, ez baitzekiten nondik nora jo, ezta kontzeptu hori nola definitu ere. Ideien ekaitzak oso oinarritzko ekarpenak egin dituzten arren, taldeka jarri eta galdera zehatzagoak erantzutea errazagoa suertatu zaie. Hezitzaileok gustura sentitu gara haiekin eta gurekiko jarrera positiboa izan da. Berrituzteko asmoa dutela jakinarazi digute, nahiz eta eskolako azterketen ondorioz, hurrengo saiora batzuk ezin izango duten etorri.</p> <p><b>Balorazio tauletan jasotakoa:</b> Orokorrean positiboki baloratu dute saioa. Okerren baloratu duten alderdia iraupenaren gaia izan da, baliteke luzeegia iruditu izana. Bakarka aritzea ere ez dute bereziki gustuko, eta erosoago sentitzen dira taldean. Gurekin gertutasuna sentitu dutela uste dugu, balorazioan alorrik positiboena izan delarik.</p>



## 2.Saioa

<b>Gaia</b>	<b>GUZTION HERRIA</b>
<b>Data</b>	Ekainak 2
<b>Helburuak</b>	<ol style="list-style-type: none"><li>3. Herriak duen kultura aniztasunaz jabetu eta hau ondare gisa ulertu.</li><li>5. Beraien hitzari garrantzia ematea.</li><li>6. Autonomia pertsonalaren garapenean laguntzea.</li><li>8. Herritar gisa dituzten eskubideak eta betebeharren inguruan hausnartzea.</li></ol>
<b>Metodologia</b>	<p><b>ESNATZE JOLASA</b></p> <p>LAU ELEMENTUAK ETA ITSASONDO: joku honetan, izenak ondo dioen bezala, lurreko lau elementuak hartuko dira aintzat, hain zuzen ere haizea, lurra, sua eta ura. Hiru lerro/ardatz margotuko dira: hasieratik, erdian kokatuko gara partaide guztiak. Lurra esaten bada, partaide guztiak lurra ukitu behar dugu eskuekin. Haizea esanez gero, eskuak goraka jarri eta mugitu beharko ditugu. Suaren kasuan, ezkerreko lerrora mugitu beharko gara, eta ura esanez gero, eskuinera. Ezkerreko ardatzean (suarenean) egonda ere gerta liteke ura esan eta bi ardatzetan jarraian mugitzea, ala alderantziz. Uraren ardatzean egonda sua esan eta bi pauso ezkerreara egitea, alegia.</p> <p><b>IDEIEN EKAITZA:</b> galderen bidez hausnarketa pertsonala eta kolektiboa sustatzen joatea (guztion herria)</p> <p>Parte-hartzea sustatzeko asmoz, eta Itsasondo guztion herria dela jakinda, hainbat galdera planteatuko dira, bukaeran Itsasondo guztion herria dela ondorioztatuz. Horrela, lehenik eta behin “Nortzuk bizi gara Itsasondon?” galdera erantzuten saiatuko gara. Horretarako gai ez direla ikusiz gero, guk pistak emango genkizkieke eta bidelagun gisa jokatu genuke. Hori behin eginda, “Nolakoak gara?” galderari emango diogu erantzuna. Honi jarraituz, Itsasondoko herritarren eskubide eta betebeharrak zeintzuk diren behin azpimarratuz, adin-tarteei egingo diegu erreferentzia, beraiek beraien bizi prozesuan suertatu diren aldaketek jabetu ahal izateko.</p> <p>Honetarako 5 talde osatuko dituzte, bakoitzak bizitzako adin-tarte baten eskubide eta betebeharrak defendatuko dituelarik (haurrak, nerabeak, gazteak, helduak eta adinekoak)*. Esan bezala, egokitutako adin tarte horrek herrian dituen eskubide eta betebeharrak identifikatu beharko dituzte, gainerako taldeek aurkakoa esateko aukera izanik. Horrela solasaldi bat sortzeko aukera izango dugu, betiere entzuketa aktiboa sustatuz eta egoera gatazkatsuak ekidinez.</p> <p>* Saioan nerabe gutxiegi baleuke 5 talde osatzeko, nerabeak eta gazteak talde berdinak defendatuko ditu, eta helduak eta adinekoak beste talde batek (horrela 3 talde nagusi sortuko genituzke).</p> <p>Bukatzeko, eta ondorio pertsonalak ateratzeko asmoz, jakinda pertsona ezberdinek dituzten eskubide eta betebeharrak ez direla berdinak, zer egin daiteke Itsasondon bizi diren pertsona guztiak herritar sentitzeko?</p> <ul style="list-style-type: none"><li>- Nola hartu dute ume izatetik nerabe izatera? Eskubide eta betebeharrak aldaketarik jasan al dute? Jasan baldin badute, zer nolakoa?</li><li>- Nola aldatzen da ikuspegia?</li></ul>



	<p>Azken galdera hauekin parte-hartzaileek euren egoera zein den hausnartzea bilatu nahi da, bide batez herriak nerabe diren heinean eskaintzen dietena eta haiek bueltan itzultzen dietenarekin lotuz. Saioan zehar parte-hartzailearen batek akta hartzea ere eskatuko da (bolondresik egon ezean guk geuk jasoko dugu), azken saioko infografian egun honetan hausnartutakoa nonbait jaso izan dezagun.</p>
<b>Materiala</b>	Tizak
<b>Balorazioa</b>	<p>Saio bakoitza baloratzeko tresna berbera erabiliko dugu, materialen karpetan sortu dugun taula. Taula honetan zenbait irizpide jarri ditugu eta irizpide bakoitzarekiko duten sentipena adierazten duen "emoji"-an X markatu beharko dute. Parte-hartzaile guztiek taula berean egingo dute balorazioa eta ondoren hezitzaileok taulako ondorioak aterako ditugu egunez egun.</p> <p>*** bi gazte gerturatu dira bakarrik, gaztelekuan egon gara mahai jolasetan eta berriketan. Hurrengo saioan 2. Saioa eta 3.go saioko edukiak landuko ditugu.</p>



3.Saioa	
Gaia	Herritik herriarentzat
Data	Ekainak 11
Helburuak	<ol style="list-style-type: none"> <li>2. Herriak eskaintzen dienaren inguruan hausnartzea.</li> <li>4. Herriak eskatzen dienaren inguruan hausnartu.</li> <li>5. Beraien hitzari garrantzia ematea.</li> <li>6. Autonomia pertsonalaren garapenean laguntzea.</li> <li>7. Partehartzean trebatzea</li> </ol>
Metodologia	<p><b>ESNATZE JOLASA</b> 3aren jolasa: Guztiok borobilean kokatuko gara eta eta zenbakiak ordenean esatea da xedea. zenbaki debekatu batzuk daude, 3a, 3ren multiploak direnak eta 3a dutenak. Hau horrela, debekatutako zenbaki bat esatea egokitzen zaionak (borobilaren ordenaren arabera) "BUM" esan beharko du. Akatsen egiten bada berriro zerotik hasi beharko gara. Adibidez: 1, 2, BUM, 4, 5, BUM, 7, 8, BUM, 10, 11, BUM, BUM, 14, BUM, 16, 17, BUM, 19, 20, BUM, 22, BUM, BUM, 25...</p> <p>2. AMIA: Jarduera hau egiteko AMIA taulak prestatuko ditugu, lau lauki izango dituenak. Lauki bakoitzean honakoei erantzun beharko diote banaka:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Zein ekintza dituzu gustoko? (indarguneak)</li> <li>- Zein ez dituzu gustoko? (ahulguneak)</li> <li>- Zer aldatuko zenuke? (mehatxuak)</li> <li>- Zer egiteko/emateko prest zaude? (aukerak)</li> </ul> <p>Behin fitxak beteta daudenean idazkari bat izendatuko dugu (ahal den neurrian bolondresa) eta borobilean eserita bakoitzak laukietan jarritakoa aipatzen joango gara. Idazkariaak aipatu diren gauzak txantilo berriari jasoko ditu.</p> <p>3. ITSASONDOKO MAPEOA: Ekintza honetan itsasondoko mapa handi bat beharko dugu. Mapa hau lurrean jarri eta gazteak elkartu edo egon ohi diren lekuak borobilduko dituzte margoz. Ondoren legenda bat sortuko dugu guztion artean, AMIA jasotako informazioa (borobilduta espazio horien inguruan gustatzen zaiena, ez zaiena gustatzen, e.a.) azaltzeko. Adibidez; gometxa gorria= ez zaidan gustatzen adierazteko, horia=aldatuko nukeena, berdea=gustatzen zaidana... Beraz, borobildutako espazio bakoitza baloratuko dugu gometxak jarri eta gometxa horiek zeri dagozkion azalduz. Honela, herrian erabiltzen dituzten guneen alderdi on eta txarrak bisualki jasotzea lortu nahi da.</p>
Materiala	AMIA txantiloak prestatu, Itsasondoko mapa handia inprimatuta, boligrafoak, margoak, Gometxak
Balorazioa	<b>Begiraleen behaketak:</b> Guztira 7 nerabe etorri dira (6.mailakoak eta 5. mailako bat, zaharrenak ez dira etorri). Esnatze jolasak oso ongi joan dira eta haiek proposatu dute beste jokuren bat ere. Lehendabizi 2.saioko abantaila eta desabantailen taula bete dugu eta nahiz eta hasieran kosta egin zaien bukaerarako guztien artean ideiak partekatzeko gai izan dira eta nahiko osatua geratu da. Ondoren AMIA egin dugu eta hau aurreko ariketa baina gehiago kosta zaie. Azkenean gure laguntzaz egiteko prest dauden gazteak hitz egiten hasi dira eta taula islatu dituzte





haien nahiak eta proposamenak. Udako irteeraz ere hitz egin dugu eta gogoz hartu dute berria. Haien proposamen nagusia hondartzara joatea izan da. Amaitzeko beste bi jolas egin ditugu eta oso aktibo egon dira, gehiagorako gogoz geratu direla esan digute, asteazkenean etorriko direla adieraziz.


**Nerabeek egindako balorazioak:** Amaitu baino haietako 2 joan egin direnez 5 balorazio taula jaso ditugu. Orokorrean, balorazioa positiboa izan da eta okerren baloratuak izna direnak berriro ere iraupena eta bakarkako lana izan dira. Agian galdetu egin beharko genieke ea luze edo motz egiten zaien eta zergatik edo zein dinamika zehatz den iraupenez desegokia iruditzen zaiena. Bereziki positiboki baloratu dituzte dinamizazioa eta talde-lana. Nabari da taldeko jardueretan gustura aritzen direla eta orokorrean ados daudela hitz egiten diren kontuekin.



4.Saioa	
Gaia	Ondorioak eta konpromezuak
Data	Ekainak 16
Helburuak	<ol style="list-style-type: none"><li>5. Beraien hitzari garrantzia ematea.</li><li>6. Autonomia pertsonalaren garapenean laguntzea.</li><li>7. Partehartzean trebatzea.</li><li>9. Ondorioztatutakoen inguruan konpromezuak hartzea</li></ol>
Metodologia	<p>1. Imitazioen jolasa: Jolas honetan borobilean jarriko gara eta imitazioko figurak azalduko ditugu. Figura bakoitza 3 pertsonen artean egiten da eta beraiek ere figura berriak proposa ditzakete (gure ideiak: elefantea, jirafa, palmondoa, tostadora, batidora, garbigailua). Borobilaren erdian pertsona bat egongo da eta borobileko norbait hatzaz seinalatuko du, seinalatua izan den horrek eta bere 2 alboetan dauden pertsonak erdikoak agindutako figura osatu beharko dutelarik. Ongi imitatu ezker erdian jarraituko du pertsona berberak, bestela, gaizki egin duena jarriko da erdian.</p> <p>2. Infografia: Infografia egiteko 3.saioko mapeoa hartuko dugu oinarritzat, nerabeek herriarengandik jasotzen dutena eta eskaini nahi diotena azpimarratzeko. Ondoren, 2.saiotan "guztion herria" lelopean landutako eskubide eta betebeharrak aipatuko ditugu, adibidez, landutako kolektibo bakoitzak herrian dituen espazioetatik abiatuta haien egoera azalduz. Jakina, espazio zehatzik ez duten kolektiboen egoera ere azpimarratzen eta honetaz jabe daitezen ere ahaleginduko gara hezitzaileak. Nerabeek legenda sortu beharko dute. 1go saioan landutako "herri identitatea" infografian adierazteko ideien ekaitzeko Post It-ak eta esaldiak txerta ditzakegu inguruan. Hona hemen gure behin-behineko proposamena:</p> <p><b>3. Konpromezuak:</b> Saioekin amaitzeko nerbeek hartuko dituzten konpromezuen inguruko kontratu modukoa diseinatuko dugu hezitzaileok eta guztiok sinatuko dugu amaieran.</p>



## Materiala



Post It-ak, Margoak, artaziak, paper handia, boligrafoak, kola, Konpromezuak hitzartzeko txantiloia ereduia sortu

**Comentado [1]:** hezitzaileok lehenago txantiloia prestatuko dugu, baina konpromezuak saioan erabakiko dira

**Comentado [2R1]:** ok

## Balorazioa

Saio bakoitza baloratzeko tresna berbera erabiliko dugu, materialen karpetan sortu dugun taula. Taula honetan zenbait irizpide jarri ditugu eta irizpide bakoitzarekiko duten sentipena adierazten duen "emoji"-an X markatu beharko dute. Parte-hartzaile guztiek taula berean egingo dute balorazioa eta ondoren hezitzaileok taulako ondorioak aterako ditugu egunez egun.

Lehenik eta behin, saioa ahalik eta modu dinamikoenean hasteko helburuz imitazioen jolasa (elefantea, jirafa, palmera etab.) burutu dugu, ondoren zapi-zapi jolasarekin jarraipena emanez. Hau horrela, partaideak jolasetan gustura eta alai aritu dira eta hau balorazioetan isladatu da, begiraleen dinamizazioa eta sentipen orokorra nabarmenduz. Ondoren, Itsasondoko mapeoa egin dugu, bertan gustuko dituzten, hain gustuko ez dituzten eta aldaketaren bat jasan beharko luketen tokiak/eremuak identifikatuz. Bereziki beheko kalea aproposa ez dela adierazteaz gain, Itsasondoko miradorearekin orain dela hilabete batzuk gaizki ulerturen bat izan zutela esan dute. Aldatzeko gauzei dagokienean, miradorean mahai berriren bat jartzea (bestea puskatu egin zelako), gazteleku inguruan iturri eta zaborrontziren bat jartzea eta adinekoen parkeari dagokionez, beraientzako egokia den zerbait jarriko balitz (tirolina, slack-line bat etab.) gustura joango liratekeela esan dute. Gainera, infografian parte-hartzearen prozesu guztiko ideiak laburbildu dituzte, sentipen orokorrei garrantzia emanez. Amaitzeko, zenbait konpromezu hartu ditugu bai hezitzaileok bai nerabeek, hala nola astean behin (ostiraletan) gaztelekura bertaratzea eta ekintza egingarriak udaletxeari luzatzea.



## 7. Prozesuaren ondorioak laburbilduz...

- Gustura parte hartu dute saioetan eta asistentzia gutxitu den arren (lehen saiotik azkenera) parte hartu duten nerabeak oso parte hartzaileak dira.
- Herri identitatea garatua dute, eta Itsasondotik gauza on asko baloratzen dituzte.
- Belaunaldi ezberdinen arteko harremana ondo baloratzen dute.
- Herriari zenbait hutsune ikusten dizkiete, bereziki, azpiegitura aldetik.
- Beraien adin tarterako ekintza eta baliabide gutxi daudela azpimarratzen dute.
- Prest azaldu dira konpromezuak hartzeko, herritik herriarentzat lan egin nahi dutelako.
- Udalari (herriari) eskakizun zehatz batzuk helarazi dizkiete.  
Beraientzako ekintzak antolatzea  
Gaztelekua txukuntzeko eta egokitzea  
Gazteleku kanpoan zakarrontziak eta iturri bat jartzea  
Miradoreko mahaia konpontzea  
Adinekoen parkean beraien adinekoentzako gauzak jartzea (slack line adb)  
Beko kalen farolak/argiteria jartzea.
- Hezitzaileok eskaera horiek bideratuko ditugu udalera.
- Harturiko konpromezuak betetzeko borondatea azaldu dugu guztiok.



## **8. Eranskinak**

### **1.saioko edukiak**



Norako herria dela uste duzu?  
Zer azerdi on ditu?

① Ona, Lasaitasuna, Karitatea,  
Ardapatsua, berokule eta eraso sustatzen (3 aldiz guti),  
Polizia (zertsona), gandea majoc, Bitxia,

②




ZER FALTA DELA USTE DUZUE ★  
EMEN?

- Jendea.
- Mutrikuak.
- Pistina.
- Polikiroldegia bat.
- Salon de belleza.
- Barras de Pol.
- Gaztetxe berri bat.
- Diskoteka bat.
- "Parke de atrakeiones"
- Platano zuhaitz bat.
- Natura gehiago.
- Arropa dendarak.


ZEIN 3 HITZETAN DEFINITUKO ZENUKE  
ITSASONDO?

- Sosoa
- Txikia
- Jende jatorria


















					
Saioen antolaketa					X
Iraupena				X	
Parte-hartzea					X
Begiraleen dinamizazioa					X
Talde-lana					X
Bakarkako lana				X	
Eguneko jarduera				X	X
Sentipen orokorra					X

					
Saioen antolaketa			X		
Iraupena			X		
Parte-hartzea			X		
Begiraleen dinamizazioa				X	
Talde-lana				X	
Bakarkako lana			X		
Eguneko jarduera				X	
Sentipen orokorra			X		



					
Saioen antolaketa				+	
Iraupena			X		
Parte-hartzea		X			
Begiraleen dinamizazioa					X
Talde-lana				X	X
Bakarkako lana			X		
Eguneko jarduera					X
Sentipen orokorra					X


					
Saioen antolaketa					X
Iraupena				X	
Parte-hartzea			X		
Begiraleen dinamizazioa					X
Talde-lana					X
Bakarkako lana			X		
Eguneko jarduera				X	
Sentipen orokorra				X	



Saioen antolaketa				✗	
Iraupena		✗			
Parte-hartzea			✗		
Begiraleen dinamizazioa			✗		
Talde-lana				✗	
Bakarkako lana			✗		
Eguneko jarduera				✗	
Sentipen orokorra				✗	

Saioen antolaketa			✗		
Iraupena				✗	
Parte-hartzea					✗
Begiraleen dinamizazioa				✗	
Talde-lana					✗
Bakarkako lana				✗	✗
Eguneko jarduera					✗
Sentipen orokorra					✗



					
Saioen antolaketa				X	
Iraupena			X		
Parte-hartzea				X	
Begiraleen dinamizazioa					X
Talde-lana				X	
Bakarkako lana			X		
Eguneko jarduera			X		
Sentipen orokorra					X

					
Saioen antolaketa				X	
Iraupena				X	
Parte-hartzea					X
Begiraleen dinamizazioa					X
Talde-lana					X
Bakarkako lana			X		
Eguneko jarduera				X	
Sentipen orokorra					X








Saioen antolaketa				X	
Iraupena			X		
Parte-hartzea					X
Begiraleen dinamizazioa					X
Talde-lana				X	
Bakarkako lana				X	
Eguneko jarduera					X
<b>Sentipen orokorra</b>					X

Saioen antolaketa			X		
Iraupena			X		
Parte-hartzea				X	
Begiraleen dinamizazioa					X
Talde-lana					X
Bakarkako lana				X	
Eguneko jarduera				X	
<b>Sentipen orokorra</b>					X







					
Saioen antolaketa			X		
Iraupena			X		
Parte-hartzea				X	
Begiraleen dinamizazioa					X
Talde-lana					X
Bakarkako lana				X	
Eguneko jarduera				X	
<b>Sentipen orokorra</b>					X

					
Saioen antolaketa			<del>X</del>	<del>X</del>	
Iraupena			<del>X</del>	<del>X</del>	
Parte-hartzea				<del>X</del>	
Begiraleen dinamizazioa					<del>X</del>
Talde-lana				<del>X</del>	
Bakarkako lana				<del>X</del>	
Eguneko jarduera			<del>X</del>	<del>X</del>	
<b>Sentipen orokorra</b>					<del>X</del>



## 2. eta 3. saioko edukiak







ONAK	TXARRAK
<ul style="list-style-type: none"><li>- Hoberenak <del>gea</del></li><li>- Energia dugula.</li><li>- Gaithekean daramizu.</li></ul>	<ul style="list-style-type: none"><li>- Helduek etan naurertrat ekinirik dauke baina bertako trabait gaitu da.</li><li>- Haurrek eskolan lanak et dituzte epiten eta grix bai.</li><li>- Gaste edo neraberrera <sup>egoteko</sup> <del>leku</del> <sup>lekurik</sup> ez dagoela.</li></ul>



## Abantailak

Zerbait txarra / arazo  
bat dagoenean, 11 urteko  
gora esateko joan.  
NERABEEN KAJUAN ⊖

- Parkeak (2)
- Ludoteka → (2 - 12)
- Gaztelekua
- Eskolako eremuak
- Ekintza gehiago ↑ buru arinene ↑

## Desabautailak

~~Ekintza~~

Xaguxero



## ELDUAH

ADANTAILAK		DESABANTAIK	
Elduak	Adinero jendea	Elduak	Adinero jendea
<ul style="list-style-type: none"> <li>-Nahi dutena beraien dima-ekin.</li> <li>-Nahi dituzten Serie-Pe-ak hura guztiak jirusi ditzaizte.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>-Jendearen laguntza.</li> <li>-Herriaren beraien zango gaur.</li> <li>-Ez dute saririk egiten.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>-Lanera joan</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>-Eskalearen eta bitiko aska igo beharra.</li> <li>-Auzoak dituzte gaur aurreratu egiten.</li> </ul>










HERRIA

ITSASONDOKO HAUR TXOKOAK GAZTE-LEKUAK	Abantailak	Desabantailak
	<ul style="list-style-type: none"> <li>- 2 oruz</li> <li>- Ludoletxa.</li> <li>- Eskolako eremua</li> <li>- Erantza gehia.</li> <li>- Hoberenak geala.</li> <li>- Energia duguia.</li> <li>- Antolatzea gaitasuna.</li> <li>- Gastelekua daukagu.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ez dute gastelekua.</li> <li>- Gurutzat et dago ekin-tarik.</li> <li>- Gehiago oxijitzaen dugu.</li> <li>- Ez dugu egoteko lekunik.</li> <li>- Nerabeek izaten dugu denon erua.</li> </ul>
	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Nahiz dutena egin dezakete</li> <li>- Nahiz dituzten pelikula/serieak ikusi ditzakete.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- danera joan behar dute.</li> </ul>
	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Jendeak beraien lagundu egiten die.</li> <li>- Herria beraien gauza asko.</li> <li>- Ez dute lanik egiten.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Eskailerak igo beharra.</li> <li>- Arazoak dituzte gauzak egiteko</li> </ul>

gehiago  
fregatu, arropak  
jintzilikatu, itxera  
lanak



					
Saioen antolaketa				X	
Iraupena				X	
Parte-hartzea				X	
Begiraleen dinamizazioa				X	
Talde-lana				X	
Bakarkako lana				X	
Eguneko jarduera				X	X
Sentipen orokorra					X

					
Saioen antolaketa					X
Iraupena				X	
Parte-hartzea				X	
Begiraleen dinamizazioa					X
Talde-lana					X
Bakarkako lana					X
Eguneko jarduera					X
Sentipen orokorra					X





Saioen antolaketa				X	
Iraupena				X	
Parte-hartzea					X
Begiraleen dinamizazioa					X
Talde-lana				X	
Bakarkako lana			X		
Eguneko jarduera				X	
Sentipen orokorra					X



Saioen antolaketa				<del>scribble</del>	
Iraupena			<del>scribble</del>		
Parte-hartzea		<del>scribble</del>			
Begiraleen dinamizazioa				<del>scribble</del>	
Talde-lana					<del>scribble</del>
Bakarkako lana				<del>scribble</del>	
Eguneko jarduera			<del>scribble</del>		
Sentipen orokorra				<del>scribble</del>	



Saioen antolateta				X	
Iraupena		X			
Parte-hartzea				X	
Begiraleen dinamizazioa					X
Talde-lana			X		
Bakarkako lana		X			
Eguneko jarduera					X
Sentipen orokorra				X	



#### 4.saioko edukiak





### HARTURIKO KONPROMEZUAK

Burutu ditugun saioetan atera direnak kontuan izan da, herriko gazte bezala konpromezu hauek hartzen ditut.  
Gure herriko identitatea indartzeko, Itsasondo guztion herria delako eta herriatik herriarentzan egin nahi dugulako:

*Kontratu honen bidez, Itsasondoko nerabe guztien artean honako konpromezu hauek hitzartuko ditugu:*

- ① Astean behin (ostiraletan) gaztelekura etortzea.
  - ② Besteentzako ekintzak antolatzea, udaletxearekin barremanetan egonez.
  - ③ Jai batzordera agertzeko prest gaude.
  - ④ Ekintza esingarririk udaletxeari transferdatzea.
  - ⑤ Gazteentzako ekintzak antolatzea.
- DATA: ⑥ Adin tarte honentzat (nerabeentzat) foroa sortzea, parte hartzea sustatzea.
- SINADURAK:

HAIZEA

oihan

lu

enave

Amara








Saioen antolaketa				X	
Iraupena			X		
Parte-hartzea			<del>X</del>	X	
Begiraleen dinamizazioa					X
Talde-lana				X	
Bakarkako lana			X		
Eguneko jarduera				X	
Sentipen orokorra					X

Saioen antolaketa				XGUSTU ZAIT SOLA-SAK EGITEA	
Iraupena			X		
Parte-hartzea			X		
Begiraleen dinamizazioa					X
Talde-lana				X	
Bakarkako lana			X		
Eguneko jarduera				X	
Sentipen orokorra				X	



					
Saioen antolaketa				X	
Iraupena				X	
Parte-hartzea					X
Begiraleen dinamizazioa					X
Talde-lana				X	
Bakarkako lana					X
Eguneko jarduera				X	
Sentipen orokorra					X

					
Saioen antolaketa				X	
Iraupena				X	
Parte-hartzea					X
Begiraleen dinamizazioa					X
Talde-lana				X	
Bakarkako lana					X
Eguneko jarduera				X	
Sentipen orokorra					X



					
Saioen antolaketa				X	
Iraupena			X		
Parte-hartzea			<del>X</del>	X	
Begiraleen dinamizazioa					X
Talde-lana				X	
Bakarkako lana			X		
Eguneko jarduera				X	
Sentipen orokorra					X